



*Bidezko zerga politika baten alde*

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

## ZERGAITIK ESATEN DUGU HEGO EUSKAL HERRIAN DIRU GUTXI BILTZEN DELA?

Presio fiskala europar ingurukoaren oso azpitik dagoelako.

- **Zer da presio fiskala?** Zerga eta Gizarte Segurantzako kotizazioetara zuzentzen den aberastasunaren edo Barne Produktu Gordinaren (BPGd) portzentajea.

- **Datuak.** Europako Batasuneko 27 estatuen (27-EB) presio fiskala BPGd-aren % 38,4koa izan zen 2010ean, Hego Euskal Herriko (HEH) % 30,7aren aldean, eta honek, 6.500 miloi eurotako defizit baliokidea adierazten du. Alde hau zerga zuzen eta zeharkako zergetan ematen da batez ere.


- **Kokapen konparatiboa.** 27-EBetik, 6 estatuk soilik dute HEHkoa baino presio fiskal baxuagoa. 17-EBtik, Irlanda bakarrik dago atzetik, eta Grezia eta Portugalak ere zerga presio altuagoa dute.

- **Gero eta okerrago.** 2007 eta 2010 bitartean (ekonomi krisialdiko urteak), presio fiskala % 2,6a jaitsi da HEHn, 27-EBeko % 1aren aldean. Hau da, EB osoan ematen ari den krisialdiak, 1.350 milioi euro baliokideko jaitsiera handiagoa suposatu du HEHn 27-EBn baino.

## FISKALITATEAREN ERRADIOGRAFIA EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN (EAE)

**Hitzartutako zergen bilketa** (Foru Ogasunek kudeaturikoak) 11.408 milioi eurotako izan da 2012an:


- Zerga zuzen eta zeharkako zergen portzentajea oso antzekoa izan da, eta beraz, gizartea maila berdintsuan zergapetzen duten zergek eta errentaren arabera egiten dutenek antzeko pisua izan dute.
- Zuzeneko zergetan, lan errentek ia 3 aldiz pisu handiago izan dute enpresari, profesional eta kapital errentek baino.



## DIRU SARRERAK ETA KRISIALDIA EAEn

- **Ez da egia diru bilketan jaitsiera krisialdiak ekarri duenik.**

Diru bilketaren jaitsiera krisialdiak ekarri duela sinestarazi nahi digute agintariak. Baina errealitateak zera erakusten digu: diru sarrerak % 17,2a jaitsi direla 2007 eta 2012 bitartean, BPGd-a % 0,3 murriztu den bitartean.



- **Aplikaturiko politiken ondorioz jaitsi da hitzarturiko zergen presio fiskala (Foru Aldundiek kudeatzen dituztenak) BPGd-aren % 20,7tik % 17,2ra 2007 eta 2012 bitartean, 2.321,6 milioi eurotako galera baliokidearekin.**

Jaitsiera hau era berdintsuan eman da zerga zuzen eta zeharkako zergetan:


- **Zeharkako** zergen kasuan, jaitsiera BEZari dagokio.
- Zerga **zuzenen** presio fiskala aldiz, Sozietate gaineko Zergaren bilakaeraren ondorioz jaitsi da (BPGd-aren % 3,1tik % 1,7ra murriztu da), laneko errenten zerga presioa igo egin baita (BPGd-aren % 6,1etik % 6,7ra).

## ZERGA IRUZURRA: EAEko SISTEMA FISKALAREN GAITZ NAGUSIA


Iruzurra da gure fiskaltasuneko defizitaren arrazoi nagusia.

- **Ikuskaritza.** Errenta enpresarial, profesional eta artistikoen % 1,2a baino ez da ikuskatzen urtean, hau da, 83 urtero ikuskaritza bat. Bizitza honetan ikuskatua izateko aukera hutsaren hurrengoa da errenta hautzat.
- **Iruzurra Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergen (PFEZ)**

- Lan errentek aitorturiko batezbesteko errenta (22.640,3 euro 2009an) jarduera ekonomikoek aitorturikoa (12.226,5 euro) baino 10.413,8 euro altuagoa izan da.



- Jarduera ekonomikoek buruturiko zerga iruzurra hazi egin da urtez-urte: 1999 eta 2009 bitartean, aitorturiko lan errentekiko hauen aldea 6.168,1 eurotan handitu da.



### ● Iruzurra Sozietate gaineko Zergan

- Sozietateek aitorturiko irabaziak barregarriak dira. Baita ekonomi hazkunde urteetan ere.

□ Enpresen % 44,4ak galera aitortzen dituzte.

□ Sozietateen % 31,4ek 6.000 euro baino gutxiagoko irabaziak aitortzen dituzte.

- Europar enpresekiko nota: gutxiegi.

□ EAEko enpresek Sozietate gaineko Zergan ordaintzen dutena (BPGd-aren % 1,5 2010 ean) europar batezbestekoa (BPGd-aren % 2,4) baino 0,9 puntu gutxiago da, eta beraz, proportzionalki urtean 586,1 milioi euro gutxiago ordaintzen dute.

□ Batasuneko 27 estatuetatik, 4k bakarrik (Letonia, Lituania, Hungaria eta Estonia) dute Sozietate gaineko Zergan EAEkoa baino presio fiskal baxuagoa.

□ 2007 eta 2010 bitartean Sozietate gaineko Zergaren presio fiskala 1,6 puntutan jaitsi da EAEn, eta 0,9 puntutan 27-EBn: ondorioz, EAEko enpresen ordainketa proportzionalki 455,8 milioi euro gehiagotan murriztu da.

## FISKALTASUNAREN EZTABAIDA, EZTABAIDA LAPURTUA

### ● Eduki gabeko eztabaida

- Politika fiskala alderdien arteko eztabaida gaia bilakatu da krisialdiaren egungo fasean, hauteskundeetan emaitzak lortzeko helburuarekin. Fiskalitateari alderdi politiko ezberdinek itxuraz garrantzia ematen badiote ere, despistatzeko erabiltzen duten tresna baino ez da. Garrantzirik gabeko gaiak eztabaidatzen dituzte, eztabaidaren gakora sartu gabe.


- Adibide bat: fiskalitatearen inguruan PNVk Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten beste taldeei joan zen urtarrilaren 28an luzaturiko proposamena. Ez du zerga sistema bidezko eta solidarioago baterantz aurrerapausorik ekarriko, eta ez du dauden gizarte beharizan handiei aurre egin ahal izateko diru sarrera nahikorik ekarriko.

### ● Errealitatea: HEHko 4 ogasunen politika fiskala berdintsua da.

Ezberdintasunak daudela sinestarazi nahi badigute ere, aplikatzen dituzten zerga politikak oso antzekoak dira. Hala erakusten dute datuek:

- 3 alderdi politiko ezberdinek gobernaturiko EAEko 3 lurralde historikoetan hitzarturiko zergen presio fiskala oso antzekoa izan da 2012an (BPGd-aren % 16,7 Gipuzkoan, % 17,1 Araban eta % 17,6 Bizkaian).

- Ez dago funtsezko ezberdintasunik 3 lurraldeetan onarturiko zerga erreformen artean. Diru bilketaren hazkundera oso txikia da kasu guztietan, eta Rajoyk PFEZ edo Sozietate gaineko Zergen buruturiko aldaketek agerian uzten dituzte 3 lurralde historikoenak.



## ONDORIOAK. ALDAKETARAKO TARTE HANDIA DAGO

- Hego Euskal Herriko zerga sistema ez da bidezkoa, eta lan errentetan oinarritzen da, soldatapekoak ez diren errentei mesedezko tratua eman ez.
- Diru sarrera publikoak ez dira falta krisiaren eraginez. Diru sarrera baxu eta gastu publiko eskasaren eredia, gure politikariek erabaki duten aukera da.
- Gure inguru europarreko datuek zera erakusten digute: presio fiskal baxuagori, gutxiago garaturiko gizarte ongizatea, murrizketa gehiago, langabezia altuago, eta pobrezia gehiago dagozkiola.
- Europar errealitateak aldaketarako tartea dagoela erakusten digu, bestelako zerga sistema posiblea dela, eta beste leku batzuetan beste era bateko egoerak daudela; hori posiblea da hemen ere. Beste behin ere, borondate politiko kontua baino ez da.

## ELAREN PROPOSAMENAK FISKALITATEAN

Beharrezkoa eta premiazkoa da Hego Euskal Herrian zerga bilketan dugun defizitarekin eta fiskalitateko injustziarekin bukatzea.

Horretarako beharrezkoa da:

- **Soldatapekoak ez diren errentetan zerga iruzurraren aurka borrokatzea.**

- Zerga-itzurpena ezabatu behar da (zerga gutxiago ordaintzea zilegi egiten duten lege-mekanismoak).
- Soldatapekoak ez diren errenta guztiak 5 urteko gehienezko epean ikuskatu, eta beraz, kolektibo horretako urteko ikuskapenak % 1,2tik % zora igo.
- Ikuskaritzan diharduten giza baliabideak nabarmen handitu. Delitu ekonomikoak ikertzeko unitateak bultzatu.
- Aldian behin, iruzur fiskalari buruzko azterlanak egitea.

- **Sozietate gaineko Zergan**

- % 35eko tasa nominal bakarria ezartzea.
- Kenkari fiskalak nabarmen murriztea, tasa efektiboa nominalaren erdia izatea eragiten baitute.

- **Ondarearen gaineko Zergan**

Zerga hau dirua biltzeko egiazko bitartekoan bilakatu, bere salbuetsitako minimo altu eta tasa apalen ondorioz, oso diru bilketa txikia suposatzen baitu.

- **PFEZ**

- Kapitalaren errentek duten pribilegiozko tratua ezabatu, Bizkaian eta Araban % 22ko tasa maximoaren arabera ordaintzen baitute, eta Gipuzkoan, % 23koaren arabera.

- PFEZaren eskalan galdutako progresibotasuna berreskuratu. Orain arte egindakoaren kontrakoa egin behar da; hau da, errentarik apalenei tasa aplikagarria jaitsi behar zaie eta errentarik altuenei igo, oso urrun baitago duela urte batzuetako % 56tik.

- PFEZaren zenbatespen objektiboaren araubidearen moduluak ezabatu, zerga honetan tarifa aplikatuzetik ordaindu beharko litzatekeena baino gutxiago ordaintzea ahalbidetzen baitu.

- **Erabateko eskumenak fiskalitatean.**

Zerga guztiak arautu eta kudeatu behar dira Hego Euskal Herrian.

- **Zergen arloko legeak Eusko Legebiltzarretik egitea**

Erreforma fiskalak Zerga Koordinaziorako Organoan hitzartu eta proposatzen dira (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiek ordezkaritza parekidean osatua).

ELAK egoki ikusten du Eusko Legebiltzarrak zerga arloari buruzko legeak egitea, legediak ahalbidetzen duen bezala.

- **Gizarteak parte hartzeko mekanismoak**

- Gardentasun osoa. Zergak azken zentimorarte ordaintzen ditugunok, langileria orokorrean, fiskalitatean gertatzen dena (eta gertatzen ez dena) ezagutzeko eskubide osoa dugu.

- "Ogasuna denok bagara", denok ere erabaki behar dugu. Prozesu partehartzaile bat egin beharra dago, zerga-politika definitze aldera. Zerga-erreformak egiterakoan, gizarteari kontsulta egin behar zaio,



Azterketa oso lortzeko, sartu

<http://www.mrafundazioa.org/eu/dokumentazio-zentrua/azterketak>

helbidean edo eskaneatu QR kodigo hau:



2013.ko martxo  
27

# Azterketak



Bidezko zerga  
politika baten alde

2013ko Zerga Txostena

**ELaren Azterketa Bulegoa**



MANU  
ROBLES-ARANGIZ  
INSTITUTUA

ESTADISTIKA